

getxoBerri

/ Nabarmenezkoak

- > Etorkintza Fundazioaren 40 urteei buruzko erakusketa (2. or.)
- > "Getxo Eszena" Arte Eszenikoen Jardunaldiak programazioaren erdialdera iritsi dira (3. or.)
- > "Getxo Txukun" parte-hartze prozesua Sarrikobaso inguruan (4. or.)



*Barruko gehigarria

Dokumentala. Hilaren 25ean, ostirala, 20:00etan, Romo Kultur Etxean, "Las barreras. Un relato de barrios". Ondareari buruzko Europako Jardunaldien barruan. Dohainik.

**A-
GENDA**

Mikel Albisu 3. Antzerki erakustaldia. Hilaren 25, 26 eta 27an, hainbat antzezlan Muxikebarrin. Sarrera: 5€/saio.

Gazteentzako 85 dirulaguntza etxebizitza- alokairua ordaintzeko, 115.000€ guztira

Udalak 114.854 euro bideratuko ditu gazteentzako 85 dirulaguntzatara, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean, Gobernu Batzordeak onartu duenez. Álvaro González Ondare eta Etxebizitza zinegotziak gogorarazi duenez, "laguntza hauen helburua da Getxoko 18 eta 35 urte bitarteko gazteei laguntzea emantzipatzeko eta helduen munduan sartzeko prozesuan, baita sustatzea udalerriko eremu guztietan alokairuko etxebizitza bat eskuratu eta bertan jarrai dezaten ere".

Deialdi honetara 101 eskabide aurkeztu ziren (aurreko deialdian baino 46 gehiago), horietatik 85 onartu dira, 14 ezetsi egin dira eta 2 pertsonak prozesuan atzera egin dute. 64 gaztek lehen aldiz jasoko dute laguntza; 20k bigarren aldiz, eta 1ek hirugarren aldiz.

Álvaro Gonzálezek positibotzat



jo du deialdi honetan erregistratutako eskaeren gorakada sartzeko baldintzak malgutu direlako. "Azken urteotan onuradun izateko baldintzei buruzko aldaketak egin ditugu eta deialdi berri honetan mantendu egin dira, gazte gehiagorengana iristeko eta laguntzaren iraupen osoa luzatzeko. Besteak beste, alokairu-errenta 1.100 eurora igo da, laguntzaren onuradun izateko gehieneko diru-sarreraren mugak handitu dira eta luzatu egin da deialdiaren irekiera-epaia eskaerak aurkezteko".

21 milioi inbertituko dira gune hori berritzeko

Kirol Portua berritzeko lanak 2025eko otsailean hasiko dira eta bi urteko iraupena izango dute

Puerto Deportivo El Abra Getxo S.A. sozietatearen Administrazio Kontseiluak, joan den astean, Kirol Portua berritzeko izapideak hasia onartu zuen. Obrak 2025eko otsailean hasiko dira, eta dagoeneko 30 urte dituzten instalazioak eraldatu eta hobetzea ahalbidetuko dute. Guztira, Abra Getxo Port S.L. sozietate ustiatzaile berriak 21 milioi euro inbertituko ditu obretan, eta aurreikusten du 2 urteko epean amaituta egotea, 2025-2040 ustiapen-aldi berriari begira.

Berritzearen hiru faseetako lehenengoan honako hauek sartuko dira: pantalan teknikoaren instalazioak eguneratzea (A, B, C eta D), pasealekuaren eremua, aparkalekuak eta bela- eta



arraun-eskolak urbanizatzea, eta kapitaintza- eta ostalaritza-eraikinak eta C eta D pabiloi teknikoak birgaitzea. Hori amaituta, 2. eta 3. faseak egingo dira hurrenez hurren.

Bere irudia berritu eta bere erabilera desestacionalizatu nahi da, urte osoan zehar bere jarduerak maximizatuz eta indartuz.

Horretarako, bere kokapen pribilegiatua eta inguruetan dagoen Gurutzaldien Terminalarekin dituen sinergiak aprobetxatuz, zerbitzu nautikoak eta bere eremuan sortzen diren gainerako jarduerak bultzatuko ditu: enpresa-, merkataritza-, gizarte-, kultura-, kirol- eta aisialdi-jarduerak.



URRIAK 17 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean (liburutegia), "Sorgin barregarriak" (euskaraz) Ana Apikarekin.

Getxo Eszena. Arte Eszenikoek Jardunaldiak. Dantza. Muxikebarrin, 19:30ean, "Los perros" Led Silhouettearekin. Sarrera: 8€.

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean, "Las hipotecas inversas". Hizlaria: J.A.G. Cenzano (ekonomialaria).

XXXIV. Jardunaldi Mikologikoak. **Hitzaldia.** 19:30ean, Aldai Patronatua (Karitatea 1, Algorta), "Gure inguruko perretxiko jangarriak eta toxikoak". Hizlaria: Pepelu Ugartetxe eta Txema Casillas. Sarrera dohainik. www.basozaleak.com

URRIAK 18 OSTIRALA

Getxo Eszena. Arte Eszenikoek Jardunaldiak. Antzerkia. Muxikebarrin, 19:30ean, "Emakume baten borroka eta metamorfosia" (euskaraz), Eneko Sagardoy, Eva Trancón eta Vito Rogado. Sarrera: 8€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Varry Braba taldeak "Sharipop" diskoa aurkeztuko du. Sarrera: 25€.

XXXIV. Jardunaldi Mikologikoak. **Hitzaldia.** 19:30ean, Aldai Patronatua (Karitatea 1, Algorta), "Mikologiaren hastapenak". Hizlaria: Zigor Ugartetxe. Sarrera dohainik.

URRIAK 19 LARUNBATA

Dokumentala. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Las casas baratas de Romo" dokumentalaren proiektioa (gaztelerez) Teresa Lavinaren eskutik. Sarrera dohainik.

Getxo Eszena kalean. Zirkoa. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Pausa" niMú taldearekin. Sarrera dohainik.

Getxo Eszena. Arte Eszenikoek Jardunaldiak. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "El alcalde de Zalamea" (gaztelerez) Teatro Corsarioarekin. Sarrera: 10€.

XXXIV. Jardunaldi Mikologikoak. Irteera. 09:00etan, perretxikoak biltzeko irteera. Arratsaldean, jasotakoa sailkatuko da Aldai Patronatua.

URRIAK 20 IGANDEA

Getxo Eszena. Arte Eszenikoek Jardunaldiak. Haur antzerkia. Muxikebarrin, 16:30 eta 19:00etan, "Ez gara jaitsiko" (euskaraz) Porrot eta Marimototsekin. Sarrera: 6€.

Hallowen edition. Romo Kultur Etxean, 10:00etatik 20:30ak arte, mahai-jolasak, marrazketa-tailerra eta adin guztientzako jarduerak. Antolatzailea: Kimera Elkarte. Informazio gehiago sare sozialetan: @asociacionkimera

XXXIV. Jardunaldi Mikologikoak. Erakusketa eta dastaketa.

11:00etan, San Nikolas plazan. Perretxikoak sailkatezeko txapelketa (16 urtetatik beherakoentzat).

URRIAK 21 ASTELEHENA

Hitzaldia. 18:15ean, Romo Kultur Etxean, "Importancia de la salud bucodental a partir de los 50". Hizlaria: Mireia Melero (ahoko eta aurpegi-masailetakoko kirurgiako mediku espezialista). Sarrera dohainik. Antolatzailea: "Gizatiar", Romo-Areetako emakumeen elkarte sozio-kulturala.

URRIAK 23 ASTEAZKENA

Documental-zikloa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Bidasoa"ren proiektioa. Sarrera dohainik.

Toponimia ibilbidea. 18:00etan, Andra Maritik, euskara errezean. Doan. Izenematea: 627899320/getxo.toponimia@gmail.com

URRIAK 24 OSTEGUNA

Liburutegien eguna. Romo, Villamonte eta San Nikolaseko liburutegiak, zentroen ordutegian, erabiltzaileei liburu bat oparituak diete (agortu arte).

Getxo Eszena. Arte Eszenikoek Jardunaldiak. Antzerkia. Muxikebarrin, 19:00etan, "Las coplas del alma" Emilio Gutierrez Caba eta Luis Santanarekin. Sarrera: 8€.

URRIAK 25 OSTIRALA

Mikel Albisu 3. Antzerki erakustaldia. 19:30ean, Muxikebarrin, "1764" (gaztelerez) Teatro en la chacena taldearekin. Sarrera: 5€.

Dokumentala. 20:00etan, Romo Kultur Etxean, "Las barreras. Un relato de barrios" (gaztelerez). Ondareari buruzko Europako Jardunaldiaren barruan. Sarrera doan.

URRIAK 26 LARUNBATA

Getxo Eszena kalean. Antzerkia. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Lanean 75 urte bete arte" Barsanti konpainiarekin. Sarrera dohainik.

Mikel Albisu 3. Antzerki erakustaldia. 19:30ean, Muxikebarrin, "La duda" (gaztelerez) Platea Teatrotarekin. Sarrera: 5€.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Hoy no estrenamos" (gaztelerez) L'om Imprebis taldearekin. Sarrera: 10€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Trio Mai", Irene Ojaguren (sopranoa), Alberto Núñez (tenorea) eta Marta Díaz (piano jotzailea). Sarrera: 5€.

URRIAK 27 IGANDEA

Kai Jai. Bilboko Portuaren Eguna "Olatua" gurutze-ontzien terminalean. Orduategia: 10:30-14:30.

Mikel Albisu 3. Antzerki erakustaldia. 12:30ean, Muxikebarrin, "La jaula de las locas" (gaztelerez) Ibkartu Antzerki taldearekin. Sarrera: 5€. 19:30ean, "Tres" (gaztelerez) Teatro Espantanublos taldearekin. Sarrera: 5€.

Getxo Express zinemaldia. 19:00etan, Muxikebarrin. Sarrera gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin eskuragai). Info: <https://getxoexpress.com/>

42.000 euro eskola-orduz kanpoko euskarazko jardueratarako

Udalak 42.000 euro banatuko ditu 9 ikastetxe eta 8 familia elkarteren artean, euskararen erabilera sustatzen duten txikienentzako ezaugarri desberdineko ekimenak aurrera eramateko, hurrengo bost ildotan sailkatuta:

- A ildoak: barnetegiak, aste-buruak inguru euskaldunetan... antolatzeko.
- B ildoak: antzerkiak, bertso ikastaroak, berbodromotarako.
- C ildoak: errefortzu klaseak.
- D ildoak: musika, kirola, eskulana, dantza, teknologia... eguneroko irteerak, jaiak aurrera eramateko.
- E ildoak: Euskararen Eguna edo Euskararen asteak ospatzeko.

Diru-laguntzak

Azkorri Guraso Elkarteak 6.038 euro jasoko ditu, San Nikolas ikastolak 5.288 euro, Andra Mari ikastetxeko Guraso Elkarteak 4.732 euro, Geroa ikastolak 4.483 euro, Zubilleta Familia Elkarteak 4.398 euro, Madre del Divino Pastor Guraso Elkarteak 3.004 euro, Geroa Guraso elkarteak 2.343 euro ditu, Julio Caro Baroja Institutuak 2.022 euro, Zabala ikastetxeak 1.864 euro, Gobelako Guraso Elkarteak 1.735 euro, Zabala Guraso Elkarteak 1.583 euro, Aixerrota BHIk 1.160 euro, Sarri, Romoko Guraso Elkarteak 1.109 euro, Azkorri ikastetxeak 1.036 euro, Andra Mari ikastetxeak 603 euro, Madre Del Divino Pastor ikastetxeak 381 euro eta Larrañazubi ikastetxeak 212 euro.

Etorkintza Fundazioaren 40 urteei buruzko erakusketa

Etorkintza Fundazioaren 40. urteurrena ospatzeko erakusketa Areetako Geltokia plazan izango da ikusgai datorren urriaren 24ra arte. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu horrek urritik 2025eko martxora bitartean antolatutako jardueretako bat da erakusketa, hainbat udalerritan (tartean Getxon) egindako lana nabarmentzeko, hain zuzen ere, gizarte-premia berrietara egokituz eta preben-

tzio-, asistentzia- eta gizartratze-zerbitzuak eskainiz adikzioen, osasun mentalaren eta gizarte-kalteberatasunaren eremuetan.

Erakusketa ibiltariak (Bilbo, Getxo, Barakaldo, Gernika eta Balmaseda) adikzioen problematikarekin lotutako material grafikoa, mugarriak eta ideiak biltzen ditu, hari buruzko hausnarketa soziala bultzatzeko aldera.



Zakutxo batzuen ematea Esku Hutsik dolu perinataleko elkarteari

Haurdunaldiaren eta Jaioberrien Heriotzari buruzko Kontzientziario Eguna urriaren 15ean ospatu zela eta, udaleko +60 dinamizazio Zerbitzuko Joste Solidarioko taldeak egindako zakutxo batzuk eman zizkio Udalaren laguntza duen Esku Hutsik dolu perinataleko elkarteari. Hori lanean ari da kaltetutako pertsonenak dolua ahalik eta modu osasuntsuenean jasan dezaten, "eta horregatik, dolu hori ikusarazteko eta familiei laguntzeko egiten duen lana babesten dugu. Joste Solidarioko taldeko emakumeen lan baliotsua aitortzen dugu, pozik gaude toki-erakundeek beren proiektuak konektatzen dituztelako, gizarte batuago sustatzeko aldera", azaldu du zakutxoaren emate ekitaldian izan zen Carmen Díaz Kohesio Sozialeko zinegotziak.

Gurot lehiaketa abian

Datorren urriaren 25era arte zabalik izango da Gurot euskal galderei buruzko lehiaketa banaka parte hartzeko izena emateko epea (www.gurot.eus). Alkarbide, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen (Getxoko Udalarena barne) Bilguneak martxan jarritako Gurot aplikazioaren lehiaketa 12 eta 18 urte bitarteko gazteek hartu ahal izango dute parte, urriaren 28tik abenduaren 15era bitartean. Lehen saria Port Aventura bidaia izango da, bigarrena Puy du Four eta hirugarrena 300 euroko opari-txartela Euskadiko nekazal turismoko etxe baterako.

Animalien lagun negozioen sareak gora egin du

Getxo Enpresak, Eusko Jaur-laritzaren laguntzarekin, martxan iaz jarri zuen Animalien Lagunak negozio-sareak hazten jarraitzen du, eta dagoeneko 63 dira. Sarea maskotarekin sar daitezkeen negozioak koordinatzeko, indartzeko eta ezagutarazteko sortu zen (bereizgarri bat dute kanpoan), eta bizikidetzara jakin batzuk errespetatzearen garrantziaz jabetzeko ere balio du (kanpoan txiza ez egitea...). Negozioak Getxo Enpresaren webgunean daude eskuragarri eta maskotentzako produktuen pack bat dute.

Algortako Dendak-en desfilea

Igande honetan, urriaren 20an, Algortako Dendak elkarteak antolatzen duen desfilea itzuliko da Algortako kaleetara. Udalak babestuta, 13:00etan abiatuko da Algortako Merkaturtik eta Portu Zaharrera doan ibilbidean zehar modeloak desfilatu, pausatu eta azken joerak erakutsiko dira, soinu eta giro-animazioz.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87



“Pausa”, zirku eta dantza ikuskizuna kalean

NiMú konpainiak *Pausa* doako zirku eta dantza ikuskizuna eskainiko du Areetako Geltokia plazan, larunbatean, hilak 19, 18:30ean, *Getxo Eszena* kalean programazioaren barruan. Pailazo batek eta maleta askok ustekabe-ko bidaia bat egingo dute, eta jendea leku batera eramango dute. Bertan, itxaronaldia aspergarria izateari utziko dio, eta jolas eta irudimenezko une bihurtuko da, mugarik gabe. Inork ez du egoera absurdirik sortzen, inprobisaturik, giro poetikoan bilduta, biolontxelo jotzaile baten zuzeneko laguntzari esker.

“Bizitza jokoan” erakusketa

Urriaren 25era arte, *Bizitza jokoan* erakusketa ikusi ahal izango da Gobela kiroldegian, Mugarik Gabe elkarteak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Erakusketak agerian uzten ditu Krisi Klimatikoaren testuingurua, eta Giza Eskubideen eta Ingurumenaren aldeko Eskubideak defendatzen dituzten taldeek pairatzen duten jazarpena.

“Getxo Eszena” Arte Eszenikoen Jardunaldiak programazioaren erdialdera iritsi dira

Getxo Eszena, Arte Eszenikoen Jardunaldiak asteburu honetan erdialdera iritsiko dira, Muxikebarrin ikusi ahal izango diren hainbat ikuskizunekin.

Ostegunean, hilak 17, 19:30ean, Jon López eta Martxel Rodríguez, Silhouette dantzariak, Marcos Morauren zuzendaritzapean, *Los perros* dantza garaikideko pieza antzeztuko dute (8€).

Ostiralean, hilak 18, 19:30ean, Eneko Sagardoy, Eva Trancón eta Vito Rogado igoko dira oholtzara *Emakume baten borroka eta metamorfosisa* antzeztera, Édouard Louise egilearen bizitzari buruz hitz egiten duen lana, bere senarren sexu-gehiegikeriek itota, eta gizarte patriarkalak, familiak eta baita bere semeak ere (8€) suntsitu ondoren nola lortzen duen matxinatzea.

Larunbata, hilak 19, Calderón de la Barca idazle klasikoaren *El alcalde de Zalamea* obrari eskainiko zaio. Teatro Corsariok, ikuspegi berri batetik, bortxaketa baten



istorioa kontatuko du, ohorezko drama bat baino gehiago den ikuskizuna. Emanaldia 20:00etan hasiko da (10€).

Igandean, hilak 20, 16:30 eta

19:00etako saioetan, Porrotx eta Marimototsek txikienak dibertituko dituzte *Ez gara jaitziko!*, musika, dantza eta umorearekin familia osoarentzako ikuskizun batean (6€).

Varry Bravaren pop dantzagarria Muxikebarrin

Varry Brava indie pop talde espainiarrak *Sharipop* bere azken lana aurkeztuko du ostiralean, hilak 18, Muxikebarrin. 90eko hamarkadako Levanteko jaietako espiritua berreskuratu nahi duen ikuskizun berezia da. Disko, dance eta pop musika zuzeneko batean nahasten dira helburu bakar batekin: dantzaren espiritu errebelde eta hedonista berpiztea, eta Aarón Sáez,



Óscar Ferrer eta Vicente Illescas osatzen duten talde murtziarrari hainbeste eragin dion dibertsioa. *Tierra para bailar*, *Boomerang*, *El último festival*, *ROMAMOR*, *Georgina con Cristiano*, *La tormenta*, *El aire*, *Fígaro*, *Castigo* eta *Sharipop* dira kontzertuan interpretatuko dituzten abestietako batzuk. Ikuskizuna 21:00etan hasiko da. Sarreraren prezioa: 25€.



Manu Torralbak “Parideras del Tajuña” aurkeztu du

Manu Torralba idazle getxotarrak *Parideras del Tajuña (entre el Bierzo y la Alcarria)* eleberria aurkeztu du Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Bertan azaltzen duenez, "Ponferradako bizilagun baten bizipenak kontatzen ditu, gaztetan, gure aitona-amonak askok bezala, Gerra Zibilera joan behar izan baitzuen. Han hiru urte luze eman zituen, eta urtebete preso egon ondoren, etxera itzuli

zen familiarekin, Bierzon. Bizitzak, berrogei urte geroago, gerran beste lagun batekin bizi izandako gertaera bat bere bizitzara itzuli eta hankaz gora jartzea nahi izan zuen". Hau da Manuk argitaratzen duen laugarren liburua. "Algortako ostalaritzan urte asko eman ondoren, erretiroa hartu dudan honetan, azkenean aurkitu dut idazteko denbora, umetatik daukadan pasioa".



Victor Landetaren murala Bolueko hezegunean

Victor Landeta artista grafitigile eta margolari getxotarrak mural artistiko bat inauguratu du Bolueko Hezegunean, Uribe-Kosta autobidearen zutabeetako baten azpian. Kultur Gelak babestutako proiektua da, eta hezegunea eta bertan bizi den fauna eta flora autoktonoa suspertztea eta balioestea du helburu. Lan honekin egilearen asmoa "ingurune hau eraldatzea da, Getxon geratzen

den azken natura zatietako bat ospatuko duen erdi uretako paisaiabaten irudikapenarekin". Ingurumena eta giza eskubideak babestearekin konprometitua, 15 herrialde baino gehiagotan margotu ditu muralak, 6 kontinentetan, eta bere koadroak Berlinen, Kopenhagen, Parisen, Melbournen, Los Angelesen, Sao Paulon, Zurichen edo Madrilen daude.

“Getxo Txukun” parte-hartze prozesua Sarrikobaso inguruan

Urriaren 17tik 27ra, Udalak *Getxo Txukun* parte-hartze prozesu berria jarriko du abian, oraingo honetan Algortako Sarrikobaso eremuan. Udalak bultzatutako ekimena da, inguruko bizilagunen proposamenak, beharrak eta kezak bertatik bertara ezagutzeko, haien auzoa leku hobea izan dadin. Iradokizunak honako eremu honetarako izango dira: Bidezabal, Domingo Iturrate eta Salsidu kaleek eta Ollarretxeko errepideak mugatzen duten eremua.

Nola parte hartu

Adierazitako kaleetan ekarpenak dituen edonork egin ahal izango ditu, urriaren 17tik 27ra: **online**, *Zeugaz* plataformaren bitartez (<https://zeugaz.getxo.eus/>), **ekarpenak ebakigarrian idatzi eta utzi** auzoko hainbat puntutan dauden **postontzi gorrietan**: Sarrikobaso eta Bidebarriren bidegurutzean, Bidezabaleko metro-geltokiaren irteeran, Sarrikobaso kaleko biribilgunean Bidezabalekin, Sarrikobaso eta Elorriren arteko izkinan, eta horretarako jarritako **informazio-karpetan**, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara: hilak 18,

Auzoz auzo, kalez kale.
2024ko urriaren 17tik 27ra.

Barrio a barrio, calle a calle.
Del 17 al 27 de octubre de 2024.

“Getxo Txukun, Auzoz auzo, Kalez kale”
Getxoko Udalak bultzatutako ekimena da,
eta zure proposamenak, beharrak eta kezak
bertatik bertara ezagutzeko du helburu,
zure auzoa leku hobea izan dadin.

“Getxo Txukun, Barrio a barrio, Calle a calle”,
es una iniciativa impulsada por el Ayuntamiento de Getxo que pretende conocer de primera mano tus propuestas, necesidades e inquietudes para hacer de tu barrio un lugar mejor.

ZER EREMU BILTZEN DU GETXO TXUKUN PROIEKTUAK?
Oraingo honetan eremu honetarako jasoko dira iradokizunak: Bidezabal, Domingo Iturrate Dohatsua, Salsidu eta Ollarretxe Errepidea kaleek mugatutako eremua.

¿QUÉ ÁREA RECIGE GETXO TXUKUN?
En esta ocasión, el área sobre la que se van a recoger tus sugerencias comprende el espacio delimitado por las calles Bidezabal, Beato Domingo Iturrate, Salsidu y Carretera Ollarretxe.

Lagundu zure auzoa hobetzen
Ayúdanos a mejorar tu barrio

INGURUKO MAPA
MAPA DE LA ZONA
Getxo Txukun

ostirala, goizez eta arratsalde, Sarrikobaso eta Piñaga kaleen arteko bidegurutzean, hilak 19, larunbata, goizez eta arratsalde, Borobia plazan, Metroaren ondoan, Bidezabalen, hilak 23, asteazkena, goi-

zez, Kasune kalean (Mercadilloaren ondoan), hilak 23, asteazkena, arratsalde, Kristo Erosle eleizaren ondoan, hilak 24, osteguna, goizez, Gaztelumendi eta Bidebarri kaleen bidegurutzean, hilak 24, osteguna,

arratsalde, Sarrikobasoko biribilgunean Bidezabalekin.

Ondoren, Udalak egingo diren ekintzen berri emango du itzul-keta-liburuxka batean.

Fermin Muguruzaren “Bidasoa, 2018-2023” dokumentalaren proiektzioa RKEEn

Asteazkenean, hilak 23, Fermin Muguruzak idatzi eta zuzendutako *Bidasoa, 2018-2023* dokumentalaren proiektzioa izango da Romo Kultur Etxean. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da. Gari Garaialde argazkilaria eta Irungo Harrera Sarea migratzaileak hartzeko

sareko kideak euskaraz aurkeztuko du filma, eta, amaieran, Ongi etorri Errefuxiatuak elkarreko kideek mahai-ingurua egingo dute.

Frantziak 2018ko udan ezarri zuen Pirinioetako eta Atlantikoko Bidasoako muga naturaleko pa-

sabide batzuen polizia-kontrolak eta itxierak 10 heriotza eragin zituzten urtebetean, etorkinak Europako gainerako herrialdeetara sartzea saihesteko. Dokumental honek ahotsa eta aurpegia ematen die aktibistei ibaiaren alde batean eta bestean, eta bizia galdu zutenak gogoratzen ditu.

Jai Kai ospakizuna

Kirol Portuko Olatua itsas bi-daien terminalak hartuko du igande honetan, hilak 27, Bilboko Portuko Jaiak.

10:30etik 14:30era doako jarduerak izango dira familia osoarentzat: tailerrak, erakustaldiak, jolasak, ikuskizunak... Informazio gehiago www.bilbaoport.eus webgunean.

Rol jokoak Romo Kultur Etxean Halloween ospatzeko

Kimera Elkarteak Halloween jaiak ospatzeko rol jokoak antolatuko ditu igande honetarako, urriak 20. Romo Kultur Etxeko bigarren solairuan egingo da ekitaldia, 10:00etatik 20:30ak arte, adin guztientzako jolas eta jarduerekin eta erabat doan. Gerturatzen direnek rol jokoetara gozatu ahal izango dute, hala nola *La llamada de Cthulhu* edo *Mythras*, *Alakazum!*, *King of Tokyo* edo *Rhino Hero* bezalako mahai-jokoak erakustaldietara joan arte.

Mahai-jokoaren ludoteka handi bat ere izango da, non bertaritzen direnei jolasten irakatsiko zaien, baita marrazketa-tailer bat ere, jardunaldi hauetako Kimu Vampiro! maskotaren marrazkilaria antolatuta.

Topaketaren nobedadeak elkarrearen sare sozialetan ikus daitetzeko: Facebook eta Instagram @asociacionkimera.



“Roberto Tamayo” XV. Emakumezkoen Benjamin Futbol Txapelketa

Emakumezkoen benjamin mailako futboleko *Roberto Tamayo* Txapelketaren hamabosgarren edizioa larunbat honetan, hilak 19, jokatu da Algortako Batzokiko patioan, Bizkerre Futbol Taldeak eta Itxartu Taldeak antolatuta, Udalarekin lankidetzan, besteak beste.

Txapelketa 09:00etan hasiko da Bizkerre Gobela eta Peña Athleticen arteko norgehiagokarekin. Ondoren, Mungia-Gertasport, 09:25ean; Bizkerre Bolue-Indartsu, 09:50ean; Peña Athletic-Munguia, 10:15ean; Bizkerre Gobela-Indartsu, 10:40ean, eta Gertasport-Bizkerre Bolue, 11:05ean.

5. eta 6. postuen arteko partida 11:40an izango da; 3. eta 4. postuen artekoa, 12:05ean, eta final

handia 12:30ean izango da.

Jardunaldia 13:00etan amaituko da sari banaketarekin.

